



SORKUNTZA 2016

Deabru Beltzak 1996/2016 “20 Urte”

SU À FEU

DEABRU BELTZAK 20 URTE

1996. urtean jaio zen helburu konkretu batekin: kale antzerki ibiltariak diseinatzea eta sortzea.

Lehenengo ikuskizuna, **Les Tambours de Feu**, izan zen. Debru Beltzak definitzen dituen ezaugarri guztiak zituen: talde lana, mugimendua, kaleraren erabilera berri bat, perkusioa, ikuslearekin zuzeneko erlazioa, eta batez ere, energia eta ilusio asko.

Lehenengo lan honekin, konpainiak mundu guztitik 800 emanaldi egin zituen (Frantzia, Alemania, Kolonbia, Venezuela, Belgika, Brasil, Kanada, Luxenburgo, Mexiko, Suitza, Cabo Verde, Italia, Portugal, Kroazia, Polonia edo Ingalaterra). Ospe handia lortu zuen bai Estatu Espainolean eta baina mundu osoan ere.

Horrela, Deabru Beltzak mundu mailan euskal konpanietatik ohiartzun gehien izaten lortu zuen, gaur egun ere 20 urte pasa ondoren berdin jarraitzen du. 20 urte hauetan lanean jarraitu dugu, gelditu gabe, sortzen, diseinatzen, bidaiatzen eta orain **SU À FEU** guzti honen emaitza da: bizitako esperientziak, sorkuntza, originaltasuna, energia eta konpainiaren esfortu guztia kale antzerkian bere tokia izan dezan.


Trilogia Ibiltaria



SU À FEU

Kaleko dantzan, suan eta errtimoan oinarritzen da **SU À FEU**, kalea angulu berri eta fantastiko batetik miatzen du. **SU À FEU**, etorkizunekoak diruditen pertsonai bitxi batzuk, kalea hartzen dute eta egunerokotasuna muduko toki desberdinetako erritmoekin eta su primitiboarekin nahasten dute. Oraingoan ere Konpainiak, ikuslea gonbidatzen du kalea erritmo eta argiz betetako festa batetan bihurtzen. Ikuslegoarekin nahastea, integratzea, inguratzea, azken batean ikuskizunean inplikatzeko da, gure helburua.

SU À FEU urte askotako lanaren emaitza da, urte oso batean landutako ideien emaitza: jatorrizko partiturekin, prestaketa, entseguak, jantziak, argiak, koreografiak eta gorputzaren lanketa, piroteknia... guztia sorkuntza prozesu luze batetan sortutako talde lana da.



SU À FEU proposamen hunkigarria da, estetikoa eta organikoa. Deabru Beltzak konpainiaren ezaugarriak biltzen, berdefinitzen, ikertzen eta sakontzen dituena:

KALEAN EGINDAKO IKUSKIZUN IBILTARIA.

ANTZEZLEAK:

Ohiturarekin jarraitzeko partehartzeile kopuru magikoa da, 7 musikari/komediante dira. Guztiak konpainiak formatutak eta talde egonkorra 2009.urtetik.

MUSIKA:

Gure ikuskizunetako musika guztia guk sortzen dugu.

Oraingo honetan, musikari bakoitzari eskatu genion abestiaren zati bat egiteko, oso lan luzea eta emankorra izan da bakoitzak bere ikuspuntua eman duelako. Gure konpainian musikari batek antzezlea izatea eta piroteknian aritzea lan bakoitzean lortzen dugun konplizitatea ezinbestekoa da eta gero nabaria da.

KOREOGRAFIA:

Beste behin ere, gure ikuskizuna mugimenduaren mundura lotzea nahi izan dugu, gure koreografiekin nahastuz antzerkian dantzari bisio berri bat eman nahian. Mugimendu hunkigarriak, ausartak eta politak erabiliz, azkenean dantza garaikidearekin gertatzen den bezala bihotza ukitzen gaituztenak.

JANTZIAK:

Hasieran guk egiten ditugu lehenengo zirriborroak eta gero profesional batekin egiten dugu lan. Mayda Zabala gure konpainiaren zutabe garrantzitsu bat da, gure bost proiektuetako jantziak egin bait ditu.

ANTZERKIA KALERA ERAMATEA:

Gure helburua, ez da bakarrik kalean dauden ikusleentzat ikuskizuna egitea, baizik eta kaletik une horretan pasatzen diren ikusleak ere ikuskizunaren partaide egitea eguneroko errutina apurtuaz. Azken finean, antzerkia egitea, amets bat eta une magiko bat sortzea.

ARGI EFEKTU HARRIGARRIAK LORTZEA:

Suarekin, argiekin eta erabiltzen ditugun jantziekin efektu harriagarriak lortzen dugu.

PERKUSIOA:

Beste behin ere konpainiak bere lana musikan oinarritzen du, antzezteentzat suposatzen duen esfortsuarekin, soinu eta erritmo desberdinak sortuz ikusleen bihotzera heltzeko helburuaz.

7 musikari/antzezlez osoturiko Ikuskizuna Iraupena: ordu bete inguru

Proiektuaren Sortzaileak: Garbitxu & Zesar A.Ogara

Autore eta Zuzendari Artistikoa: Garbitxu

Diseinua: Marko / Alain Werquin

Eszenografia: Iñaki Etxeandia

Antzezleen: Zuzendaria: Zesar A.Ogara

Jantziak: Eva M^a Roldan

Musika: Deabru Beltzak

Antzezleak/Musikariak:

Ruben Sastre, Dario Campos, Alex Alonso, Iker Barrientos, Asier Elias, Zesar A. Ogara, Garbitxu

“Orain dela urte asko, amets bat izan nuen. Antzerkia egiten nuela amestu nuen, nire ideiak , nire proiektuak aurrera ematen nituen. Eta denborarekin eta lan askorekin nire ametsa errealitate bihurtu zen.

*Horrela jaio da **SU À FEU**, barne barnetik. Energiatz betetako ikuskizun bat egitea nahi nuen, preskusioa eta dantza erabiliz, argitasuna eta iluntasunarekin jolaeen, suaren magia sentitu eta usainduz eta beste behin, ikuslea abentura berri honetan inplikatzuz”*

Garbitxu

(Zuzendari Artistikoa)

Deabru Beltzak 1996/2016 “ 20 URTE ”

